Aldizkaria *Revista* n.° 18

ugao




# HISTORIA ETA INGURUMENA EZAGUTZEKO ZENTROA | CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA Y MEDIOAMBIENTAL

# Sarrera
Introducción




**Ugao-Miraballesko Historia eta Ingurumena Ezagutzeko Zentroa Jane Jauregiaren beheko solairuan dagoen instalazio bat da, jende guztiarentzat irekia. HIEZn Ugao-Miraballesko historiari, ondareari eta ingurumenari buruzko informazioa eskaintzen da.**

**HIEZ Ugao-Miraballes eta bere ingurunea hobeto ezagutzeko jakin-mina duten herritarrei zuzenduta dago. Horretarako, hainbat zerbitzu eta jarduera eskaintzen dira taldeentzat, zentroarekin harremanetan jarrita zehaztu daitezkeenak.**

**Hemen duzue 2024an egindako ekintzen laburpena, eta laster egingo diren ekintzetara gonbidatzen zaituztegu.**

El Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental de Ugao-Miraballes es una instalación abierta al público en general que se encuentra ubicada en la planta baja del Palacio Jane. En el CIHMA se ofrece información sobre la historia, el patrimonio y el medio ambiente de Ugao-Miraballes.

El CIHMA está dirigido a la población en general que sienta curiosidad por conocer mejor Ugao-Miraballes y su entorno. Para ello se ofrecen diferentes servicios y actividades para grupos que se pueden concretar contactando con el centro.

Aquí os dejamos un resumen de las acciones llevadas a cabo en 2024 y os invitamos a las que próximamente tendrán lugar.

# Zerbitzuak
Servicios

## INFORMAZIO GUNEA
Zatoz eta informa zaitez hiribilduaren historiarekin zerikusia duten gaiei buruz, Kultur agendaren gainean, mendi- zein turismo-ibilbideen inguruan...

## PUNTO DE INFORMACIÓN
Ven e infórmate sobre aspectos relacionados con la Historia de la villa, la agenda cultural, rutas turísticas y montañeras...

## ESKOLA-PROGRAMA
HIEZk hezkuntza-programa bat eskaintzen die eskualdeko eskolei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako bisitaldi bereziekin.

## PROGRAMA ESCOLAR
El CIHMA ofrece a los colegios de la comarca un Programa educativo con visitas especiales para el alumnado de Educación Infantil y Primaria.

## BISITALDI GIDATUAK
Bisitaldiak gidarekin talde-mota desberdinentzako. DOAN

## VISITAS GUIADAS
Visitas con guía para grupos de diferente índole. GRATUITAS

## MATERIALAK ARGITARATZEA
Eskatu zentroak argitaratu dituen doako materialak udalerria hobeto ezagutzeko: ibilbideak, mapak, panelak, QR plakak, baliabideen gida, etab.

## EDICIÓN DE MATERIALES
Solicita gratuitamente los materiales que ha editado el centro para conocer mejor el municipio: itinerarios, mapas, paneles, placas QR, guía de recursos, etc.

## DOKUMENTAZIO-ZENTROA
Aztertzeko eta ikusgai jartzeko helburuarekin doako lagapenean jasotako antzinako agirien, tresnen eta argazkien artxibategia.

## CENTRO DE DOCUMENTACIÓN
Archivo de fotografías, utensilios y documentos antiguos cedidos desinteresadamente por personas para su estudio y exposición.

## JARDUERA IREKIAK
Urtero hiribilduaren ondare historiko-naturalarekin lotura duten ekitaldiak eta jardunaldiak antolatzen dira.

## ACTIVIDADES ABIERTAS
Anualmente se organizan eventos y jornadas relacionadas con el patrimonio histórico-natural de la villa.

# Martxoaren 4ko ospakizuna
# Celebración del 4 de marzo



## INDABAK ETA EURIA ERE BAI!

Hiribildua sortu zeneko 649. urteurrena ospatzeko helburuarekin Ugao-Miraballesko Udalak, Kultura Sailaren bitartez eta Historia eta Ingurumena Ezagutzeko Zentroarekin elkarlanean, izaera herrikoi nabarmena duen eta adin guztiei zuzendutako egitarau oparoa antolatu zuen, martxoaren 2an eta 4an gauzatu ziren hamar jarduera ingururekin.

Ospakizunak martxoaren 2an hasi ziren ohiko lehiaketa gastronomikoarekin, Herriaren Enparantzan. Egun euritsu horretan, eguerdiko

## ¡ALUBIAS Y TAMBIÉN LLUVIA!

Con el objetivo de conmemorar el 649 aniversario de la fundación de la villa, el Ayuntamiento de Ugao-Miraballes, a través del Departamento de Cultura y en colaboración con el Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental, organizó un nutrido programa de actividades de marcado carácter popular y dirigidas a todas las edades, que se llevaron a cabo los días 2 y 4 de marzo.

Las celebraciones comenzaron el pasado 2 de marzo con el tradicional concurso gastronómico en Herriaren Enparantza. A las 14:00 horas de un día lluvioso, previo a la comida popular, se realizó la presentación de las ollas inscritas en el Concurso de Alubias y tras la comida se entregaron los premios a las mejores alubias (a las 17:00 horas, desde el balcón del Palacio de Jane).

También se prepararon actos especiales para los txikis. Por un lado, la entrega de premios del el XIX Concurso de Dibujo Infantil, este año so-



14:00etan, herri bazkariaren aurretik, Indaba Lehiaketan izena eman zuten lapikoen aurkezpena egin zen eta bazkariaren ondoren indaba onenen sariak banatu ziren (17:00etan, Jane Jauregiko balkoitik).

Txikientzako ekitaldi bereziak ere prestatu ziren. Alde batetik, XIX. Haur Marrazketa Lehiaketaren sari-banaketa, aurten "Erdi Aroko jantziei" buruzkoa, 12:30ean Janeko hallean egin behar izan zen euriagatik. Eta arratsaldean "Sasi guztien gainetik" umeentzako ikuskizunaz gozatu zuten. Goizean zein arratsaldean, Espalladoiro gaita taldeak bere errepertorio musikalarekin animatu zuen eguna, eta, eguraldi txarra gorabehera, herriko kaleak ahal izan zen moduan girotu zituen. Larunbatari amaiera ezin hobea emateko, 19:00etan "Akelarre Folk" hastea aurreikusita zegoen, Lekittoko Deabruak antzerki konpainiak asmatutako ikuskizun piroteknikoa, baina euriagatik bertan behera geratu zen. Martxoaren 4an, astelehenean, egitarauari amaiera emateko, bisita gidatu antzeztua antolatu zen herriko kaleetan zehar, erdi aroko sorgin baten gidaritzapean, 13:15etatik aurrera. Bisitan parte hartzeko ezinbestekoa izan zen aldez aurretik izena ematea Jane Jauregian.



bre "Trajes medievales", que por la lluvia que se tuvo que hacer a las 12.30 horas en el hall de Jane. Y por la tarde disfrutaron del espectáculo infantil "Sasi guztien gainetik". Tanto por la mañana como por la tarde, el grupo de gaita Espalladoiro animó la jornada con su repertorio musical y amenizó las calles del pueblo de la manera que fue posible a causa del mal tiempo. Para poner el broche de oro al sábado, a las 19:00 horas debía comenzar "Akelarre Folk", un espectáculo pirotécnico ideado por la compañía de teatro Lekittoko Deabruak, pero que quedó suspendido por la lluvia. El lunes 4 de marzo, el programa se cerró con una visita guiada teatralizada por las calles de la localidad, guiada por una sorgina medieval, a partir de las 13:15 horas con inscripción previa en el Palacio de Jane.



***Espalladoiro gaita taldeak bere errepertorio musikalarekin animatu zuen eguna.***

*El grupo de gaita Espalladoiro animó la jornada con su repertorio musical.*

# Aste berdea Ugaon
# Semana verde en Ugao

## ADIN GUZTIETAKO PARTE HARTZAILEAK GURE ASTE BERDEKO JARDUERETAN

Ugao-Miraballesko Udalak, udal ingurumen arloaren eta Historia Ezagutzeko Zentroaren bitartez, Aste Berdea ospatzeko jardueraz betetako egutegia prestatu zuen.

Adin guztiei zuzendutako ekimenak izan ziren, eta doakoak gainera. Maiatzaren 6tik 12ra, Ludoteka, Mirabatxo kluba eta Gaztelekuan ekotailerrak egin ziren, ingurumenaren ezagutzan, sentsibilizazioan eta zaintzan aurrera egiteko. Maiatzaren 9an, 18:00etatik aurrera, Herriaren Enparantzan, birziklatutako materialekin egindako jolasez gozatzeko aukera izan zen (jarduera hau 5 urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta egon zen).



Eta edizio honetako ekoirteera Peruharrira izan zen, Perurena familiak Leitzan duen museora. Museo desberdin horretan, Iñaki harrijasotzaile karismatikoak harriaren bidez bere erara azaldu zigun historia eta kultura. Museo horretan, alde batetik, tamaina handiko kanpoko

## PARTICIPANTES DE TODAS LAS EDADES EN LAS ACTIVIDADES DE NUESTRA SEMANA VERDE

El Ayuntamiento de Ugao-Miraballes, a través del área municipal de medio ambiente y del Centro de Interpretación Histórica, elaboró un calendario repleto de actividades para celebrar la Semana Verde.

Fueron iniciativas dirigidas a todas las edades y además gratuitas. Del 6 al 12 de mayo tuvieron lugar ecotalleres en la Ludoteca, el club Mirabatxo y el Gazteleku para avanzar en el conocimiento, sensibilización y cuidado del medio ambiente. El 9 de mayo, a partir de las 18:00 horas, en la Herriko Enparantza, se pudo disfrutar de juegos realizados con materiales reciclados (esta actividad para niñ@s mayores de 5 años).

Y la ecosalida de esta edición fue a Peruharri, el museo que la familia Perurena tiene en Leitza. En ese museo diferente, el carismático harrijasotzaile Iñaki nos explicó a su manera la historia y la cultura a través de la piedra. Por un lado, esculturas exteriores de gran tamaño como el gi-


















eskulturak daude, hala nola Harri-jasotzaile erraldoia, 8 metroko altuera eta 40 tona dituena. Eta bestalde, hiru solairuko harrizko eta egurrezko baserria dago. Bertan, argazkiak, lehiaketetan erabilitako arropak, oroitzapenak eta, batez ere, harriak aurki ditzakegu, argazkietan ikusten den moduan.

Gainera, aurten beste ekotailer bat ere egin dugu eta zuhaitz bat landatu dugu Ugaoko Eguneko Zentroan.

gantesco harrijasotzaile, de 8 metros de altura y 40 toneladas. Por otro lado, un caserío de piedra y madera de tres plantas. En ella se recogen fotografías, ropa usada en los concursos, recuerdos y, sobre todo, piedras como se ve en las fotografías.

Además este año también hemos realizado otro ecotaller y hemos plantado un árbol en el Centro de Día de Ugao-Miraballes.



# Ondarearen Europako Jardunaldiak
# Jornadas Europeas del Patrimonio

## ERREGE BIDEA ETA GURE ERREALITATEA ARRISKUAN!

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen Ondarearen Europako Jardunaldien testuinguruan, urriaren 18an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara, “Errege Bidearen Misterioa” izeneko kanpoaldeko Escape Room jarduera antolatu genuen.

Abiapuntua honako hau zen: Etorkizunean kaosa sortu da adimen artifiziala bereizi gabe erabiltzeagatik, eta horrek arriskuan jar dezake gure errealitatea; Bizkaiko XXX. mendeko zientzialariek garai hartan ibilgailuen saturazioarekin duten arazo larri bat konpontzeko eskatu diote Adimen Artifizialari... baina Adimen Artifizialak denboraren makina bat asmatu du XX. mendea baino lehen Errege Bidetik ibili ziren pertsonei galdetzeko... eta makinak ez du guztiz ondo funtzionatu.

Beraz, ekimeneko parte-hartzaileek hainbat garai historikotako pertsonaiei lagundu behar izan zieten Ugaotik igarotzearekin lotutako arazoak konpontzen… bukaeran argitu beharreko misterio handiago baten parte ziren erronkak. Primeran pasatu zuten eta denbora agortu baino lehen, misterioa eta etorkizuneko kaosa konpondu zituzten!






## ¡EL CAMINO REAL Y NUESTRA REALIDAD EN PELIGRO!

En el marco de las Jornadas Europeas del Patrimonio que organiza la Diputación Foral de Bizkaia, el viernes 18 de octubre, de 18:00 a 20:00 horas, organizamos la actividad de un Escape Room de exterior con el nombre de “El Misterio del Camino Real”.

El punto de partida era el siguiente: En el futuro se ha creado un caos por el uso indiscriminado de la inteligencia artificial que puede poner en peligro nuestra realidad; científicos del siglo XXX de Bizkaia han pedido a la Inteligencia Artificial que solucione un grave problema que tienen entonces con la saturación de vehículos... pero la Inteligencia Artificial ha inventado una máquina del tiempo para preguntar a las personas que circularon por el Camino Real antes del siglo XX... y la máquina no ha funcionado del todo bien.

Por lo tanto, las personas participantes en la actividad tuvieron que ayudar a personajes de diferentes épocas históricas a resolver problemas relacionados con su paso por Ugao, retos que formaban parte de un misterio mayor que al final había que resolver. ¡Se lo pasaron en grande y antes de agotar el tiempo consiguieron resolver el misterio y el caos del futuro!

# Ugao-Miraballesko XIX. Mikologia Jardunaldiak
# XIX Jornadas Micológicas de Ugao-Miraballes



## ESPEZIE ETA PINTXO UGARI!

Ugao-Miraballesko Historia eta Ingurumena Ezagutzeko Zentroak eta Fungipediak antolatuta, Ugao-Miraballesek Jardunaldi Mikologikoen aurtengo topaketa hartu zuen urriaren 26tik 27ra bitartean.

XIX. edizio honi urriaren 26an eman zitzaion hasiera, goizeko 8:00etan, Sarria-Murgiara egindako mendi irteera batekin. Betiko moduan, mota desberdinetako perretxikoak jaso genituen. Autobusa doakoa izan zen, ohi bezala. Arratsaldean bertan, goizean jasotakoaren eta adituek ekarritako beste batzuen aukeraketa eta sailkapena egin zen Jane Jauregian. Guztira 316 espezie desberdin!

Pintxo mikologikoaren ohiko ibilbidea ere egin zen asteburuan. Zazpi ostalaritza-establezimenduk parte hartu zuten, eta parte-hartzaileek Gabonetako saski baten zozketan parte hartzeko aukera izan zuten, pintxoekin lotutako argazkiak eta iruzkinak Facebook-era eta Instagram-era igoz gero.

Hurrengo egunean, urriaren 27an, igandea, 11:00etatik 14:00etara, perretxikoen erakusketa klasikoa egin zen. Eguraldi txarraren ondorioz, aurtengo erakusketa ez zen Herriaren Enparantzan egin eta Jane Jauregiaren barruan izan zen; eguraldi txarra gorabehera, jende ugari bildu zen, giro onean.

## ¡GRAN VARIEDAD DE ESPECIES Y PINTXOS!

Organizado por el Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental de Ugao-Miraballes y Fungipedia, Ugao-Miraballes acogió el 26 y 27 de octubre un nuevo encuentro de sus Jornadas Micológicas.

La de este año fue la XIX edición, una cita que arrancó el sábado 26 de octubre con la siempre valorada y exitosa excursión a Sarria-Murgia para la recolección de diferentes setas en el monte. El autobús fue gratuito como de costumbre y partió a las 8:00 de la mañana. Esa misma jornada, por la tarde, se realizó en el Palacio Jane la selección y clasificación de las especies recogidas por la mañana junto a otras aportadas por los expertos. ¡316 especies diferentes en total!

A lo largo del fin de semana también tuvo lugar la tradicional ruta del pintxo micológico, en la que participaron siete establecimientos hosteleros y durante la cual, las personas participantes pudieron participar en el sorteo de una cesta navideña si subían fotos y comentarios relacionados con los pintxos en Facebook e Instagram.

Al día siguiente, domingo 27 de octubre, de 11:00 a 14 horas, se desarrolló la clásica exposición de las setas, pero en el interior de Jane en lugar de en Herriaren Enparantza debido al mal tiempo, aun así congregando igualmente numeroso público en buen ambiente.

# Eskola Programa
# Programa Escolar

### GURE MUSEOA, UGAOKO HISTORIA EZAGUTZEKO MODURIK ONENA

HIEZren helburuetako bat gure ondarea denei erakustea da, bereziki haurrei eta gazteei ezagutza hori errazteko. Hori lortzeko eskola-bisitak, haurrentzako tailerrak eta hainbat jarduera antolatzen ditugu, gure historia bertatik bertara ezagutzeko aukera emanez. 2024. urtean zehar 20 eskoletako 764 ikaslek bisitatu gaituzte.

Hainbat material didaktiko ditugu ikasturtearen arabera, eta, gainera, gure bisitetan ondo pasatuko dutela bermatzen dugu, bisita guztiak antzeztuak izaten baitira. Momentu honetan gure material guztiak berritzeko asmoa daukagu.

Beraz, badakizu, animatu zure seme-alaben irakasleak doan izena eman eta bisita gaitzaten.



### NUESTRO MUSEO, LA MEJOR FORMA DE CONOCER LA HISTORIA DE UGAO

Uno de los objetivos que tiene EL CIHMA es la de mostrar nuestro patrimonio a todos los públicos, con especial énfasis en facilitar ese conocimiento a los niños, niñas y jóvenes. Lo hacemos a través de visitas escolares, talleres infantiles y diversas actividades, que les dan la oportunidad de conocer de primera mano nuestra historia. A lo largo de 2024 nos han visitado 764 alumn@s de 20 colegios.

Contamos con diversos materiales didácticos según el curso escolar y además garantizamos la diversión en nuestras visitas, pues todas ellas son teatralizadas. En estos momentos tenemos la intención de renovar todos nuestros materiales.

Así que, ya sabes, anima al profesorado de tus hijos e hijas a que se inscriban de forma gratuita y nos visiten.

# Bisita gidatuak Ugao-Miraballesera

## Visitas guiadas a Ugao-Miraballes




### BAKARRIK EDO TALDEAN, EZAGUTU UGAO-MIRABALLES ZUK NAHI DUZUN BEZALA!

Zentro honek bisita gidatuak eskaintzen dizkie mota askotako taldeei eta une zehatz batzuetan (Hiribilduaren Urteurrena, Museoen Nazioarteko Eguna...). Normalean, bisita erakusketa iraunkorrean hasten da, hiribilduaren bilakaera historikoa ezagutzeko, eta, ondoren, hiri-ibilbide bat egiten da, izandako aldaketak eta tokiko ondarea bertatik bertara ikusteko.

2023tik aurrera, "Ezagutu Ugao zure kontura" izeneko ibilbidea indartu dugu, eta bisitariei arreta emateko ordutegian jaso daitezkeen mapa batzuetan islatu da. Ibilbide horretan bideo laburrak daude, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, Ugaoko leku nabarmenenak azaltzeko. Zuen mugikorrean ikusi ahal izango dituzue, puntu horietan jarri ditugun plakak eta QR kodeak dituzten itsasgarriak eskaneatuz gero. Zuen zain gaude!




Bestalde, aurten "Komiki eta Historia Jardunaldiak" egiten jarraitu dugu. Jardunaldi horietan, Harriet argitaletxeak utzitako "Sorgin Seinalea" erakusketa ekarri genuen. Aitzakia ezin hobea izan zen familientzako bisita gidatua eta komiki-tailerra antolatzeko eta komikigintzarekin lotutako hainbat jarduera antolatzeko haur eta gazteentzako gure ekipamenduetan.

### SOLO, SOLA O EN GRUPO ¡CONOCE UGAO-MIRABALLES COMO TÚ QUIERAS!

Este Centro oferta visitas guiadas a grupos de diversa índole y en momentos puntuales (Aniversario de la Villa, el Día Internacional de los Museos...). Normalmente la visita comienza en la exposición permanente para conocer la evolución histórica de la villa y seguido se realiza un itinerario urbano para ver in situ el cambio y el patrimonio local.

Desde 2023 hemos reforzado la ruta denominada "Conoce Ugao por tu Cuenta" que quedó plasmada en unos mapas que se pueden recoger en el horario de atención al visitante. Dicha ruta incluye vídeos breves en euskera, castellano e inglés para explicar los lugares más destacados de Ugao, que podréis ver en vuestro móvil escaneando las placas y las placas con códigos QR que hemos puesto en dichos puntos. ¡Os esperamos!

Por otra parte, este año hemos continuado realizando las "Jornadas de Cómic + Historia" en las que trajimos la exposición "Sorgin Seinalea" cedida por la Editorial Harriet que fue la excusa perfecta para organizar una visita guiada y taller de cómic para familias y diversas actividades relacionadas con el mundo del cómic en nuestros equipamientos infanto-juveniles.






**JENDEAURREKO ORDUTEGIA:**

Asteartetik ostegunera: 9:30tik 15:00ra

**Bisita gidatuak:**

Adostu behar dira (aldez aurretik)

**946480704**

**ugao-miraballes-museo@ortzadar.es**

**Jane Jauregia**

Udiarraga kalea, 38

48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)

**HORARIO ATENCIÓN AL PÚBLICO:**

Martes a jueves de 9:30 a 15:00 horas

**Visitas guiadas:**

Horario a convenir (previa reserva)

**946480704**

**ugao-miraballes-museo@ortzadar.es**

**Palacio Jane**

C/ Udiarraga, 38

48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)

**https://www.ugao-miraballes-museoa.org**

**https://kulturaugao.wixsite.com/website-3**

@kultura_ugao www.facebook.com/UgaoMiraballeskoHistoriaEzagutzekoZentroa


| 2025EKO HURRENGO JARDUERAK | PRÓXIMAS ACTIVIDADES DE 2025 |
|---|---|
| **OTSAILA**<br>**Aratosteak** | FEBRERO<br>**Carnavales** |
| **MARTXOA**<br>**Aratosteak \| Hiribilduaren 650. urteurrena \| Emakume Ekoizleen Azoka \| "La Fábrica de Yute" ikerketa-lanaren aurkezpena eta lantegi horretan lan egin zuten emakumeei omenaldia** | MARZO<br>**Carnavales \| 650 aniversario de la Villa \| Feria Mujeres Productoras \| Presentación del trabajo de investigación "La Fábrica de Yute" y homenaje a las mujeres que trabajaron en esa fábrica** |
| **APIRILA**<br>**Euskal Astea \| IV. Sukaldaritza eta Gastronomia Jardunaldia \| Aste Santuko hiri-koloniak** | ABRIL<br>**Euskal Astea \| IV Jornada de Cocina y Gastronomía \| Colonias urbanas de Semana Santa** |